

Xabier Letona



DANI BLANCO

Handitan izan nahi dudana

CHARLIE HEBDO, ez naiz eta banaiz. Nik ere antzerako burutazioak izan ditut Parisko 12 hilketen ondorengo uneetan, Pello Zubiria ARGIAko kazetariak bere blogean azaltzen zuen bezala. Ez naiz eta banaiz. Igandeko Parisko manifestazioan herritarren artean egongo nintzateke hildako kazetarietako elkertasunez eta sarraskia salatzeke; eta ez nintzateke izango, munduko buruzagiek emandako doinuaz zibilizazioen arteko talka azpimarratu delako, Mendebaldearen lehentasuna eta nagusikeria lehen lerroa eramanez.

Charlie naiz, kazetari moduan, adierazpen askatasuna lanbide eta bizitzaren ardatz delako lumaz edo arkatzez aritzen garenontzat. Ez naiz, mendebaldeko agintariak *Charlie Hebdo* eta adierazpen askatasuna beren zibilizazio nagusikeriaren sinbolo bihurtu nahi dutelako.

Charlie naiz, miresgarria eta eredugarria delako kazetari eta marrazkilari talde batek noraino egin dezakeen beren ideiekin bat bizitzeko, libre guztiz halakorik ezin den munduan, Askatasunari etengabe ateak irekiz. Ez naiz, haien probokazio eta ikusmolde guztiekin bat ez natorrelako. Ez nintzateke gai izango aldizkariko azalean Mahoma profeta kaka bat dela esateko, ados ez nagoe-lako eta, gainera, temeritatea delako.

Charlie Hebdo izan nahi nuke, baina ezin dut, mundu arriskutsu honetan zuzentzea biziraupenerako balioa ere badelako, eta giza eskubide eta giza baloreen irakurketa globalizaturik ez dagoelako. Oraindik ezin dut, baina handitan bai, handitan *Charlie* izan nahi nuke.

“HAU EZ DA Frantziako hiriburu gertatutako krisi terrorista isolatu eta dramatiko bakan bat. Ekialde Hurbila Europan instalatzen ari da. Hurakana Sirian da, Iraken eta baita gure artean ere. Munduko arazoaren integrazio nahasketa da eta Mendebaldea dagoeneko ez da konpartimendu porrot eta hondamendien ondorio lazgarrien aurrean”. Rafael Poch Parisko *La Vanguardia*ko korrespondentek horrela zabalitzen zuen iragan igandeko bere kronika. Alegia Yihadismoak bere jarduna globalizatu duela eta orain Bagdad, Alepo eta Damasko, Paris, Londres edo Madril izan daitezkeela.

Yihadismoak bere jarduna globalizatu du eta orain Bagdad, Alepo eta Damasko, Paris, Londres edo Madril izan daitezke

Adierazpen askatasunaren defentsa egin behar dela bistan da eta *Charlie Hebdoren* aurkako sarraskiaren aurkako salaketa ere bai, baina atentatu horiek bere tesuinguruan jarri barik, nekez egin daiteke egoeraren azterketa egokirik. Hiltzaileek hitzez ere argi azaldu dute hori segurtasun indarren tiropean hil aurretik.

Gerra Hotzaren amaieran ospetsu egin zen Francis Fukuyamaren esaldia: “Historia amaitu da”. Mendebaldeak erabateko garai-pentzat hartu zituen Berlingo Harresiaren eta Sobiet Batasunaren desagertzea. Zibilizazioak komunismoa garaitu zuen. Ongiak gaizkia. Eta 2001eko Dorre Bikien

atentatuaren ondoren, Amerikako Estatu Batuek logika berberari ekin zioten: norberaren ikusmoldeari eusteko, zibilizazioak behar zuen bere gaiztoa birsortzea. Berriz ere irabazteko, beren herritarren gobernu zapaltzaile eta ustelak nahieran erabiliz, bere hegemonia helburuak hamaikagarenez gauzatzeko.

Gerra berri horretan gaude eta, itxura guztien arabera, zipriztinak gero eta sarriago jasango dira Mendebaldean, gurean. Baina Parisen iragan igandean ikusi zenez, etsaiari aurre egiteko prest da Mendebaldea. Segurtasuna eskubideen gainetik, irailaren 11ren ondorengo bigarren kapitulu abian da, bidez batez Europa barruan sor daitezkeen edozelako alternatibak hobeto kontrolatzeko.

Askoz ertz gehiago ere baditu *Charlie Hebdoren* aurkakoak, zorrotzak eta korapilatsuak, hegotik datozkigun herritarrei gure gobernuak oztopo gisa jartzeko dizkieten txarrantza biribilen gisakoak, baina Mendebaldeko nagusikeria da, ostera ere, lurrikara berri honen epizentroan.

ADIERAZPEN ASKATASUNA

askatasunaren akuilu eta lurralde librea da aldi berean, bizi leku goxo, mingots eta kontraesankorra. Kartzelan dira oraindik *Egin*-eko arduradunak, ETAko izateaz zigortuta, haien arma bakarra luma zenean. *Charlie* ei direnek espetxeratu zituzten. Paristik bueltan dira. ETAk Javier Lopez de Lacalle kazetaria hil zuenean, edo Gorka Landaburu zauritu, ezker abertzaleko esparru batek ez zuen *Charlie* aipatu, gatazka baizik. Bizigune ez dena ezin ipar bilakatu. ■

